KIROLGI
Talentua pizten

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
GIPUZKOA KIROLAK

**Gipuzkoako kirolariei zuzendutako diru laguntzen 2020ko deialdia.**

**Lehena.- Oinarri arautzaileak.**

Gipuzkoako kirolariei zuzendutako diru laguntzen oinarriak 2020ko otsailaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren erabaki bitartez onartutakoak dira.

**Bigarrena.- Onuradunak.**

Laguntza ekonomiko hauek jasotzeko aukera Gipuzkoako kirolariek izango dute honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Hemezortzi urtetik gorakoa izatea. Automatikoki baztertuta geratuko dira deialdia egin den urtearen aurreko abenduaren 31n 18 urte bete gabe dituzten kirolariek egindako eskaerak.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko kluben bateko kide izatea.
- Kirolgi Fundazioak oinarri arautzaile orokorretan eta zehatzetan ezarritako kirol merituak egiaztatzea (1.2. eta 2. eranskinak).

Halaber, ezingo dituzte diru laguntza horiek jaso Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako antzeko edo helburu bereko laguntzaren baten onuradun diren kirolarien eskaerak.

**Convocatoria 2020 para la concesión de las subvenciones destinadas a deportistas de Gipuzkoa.**

**Primero.- Bases reguladoras.**

Las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones destinadas a deportistas de Gipuzkoa son las aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de fecha 18 de febrero de 2020.

**Segundo.- Personas beneficiarias.**

Podrán optar a las ayudas económicas las y los deportistas de Gipuzkoa que cumplan los siguientes requisitos:

- Ser mayor de dieciocho años. Se excluirán automáticamente todas aquellas solicitudes de deportistas que a 31 de diciembre del año anterior a la convocatoria no hayan cumplido 18 años.
- Estar adscrita/o a un club del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Acreditar los méritos deportivos establecidos por Kirolgi Fundazioa en las bases reguladoras generales y específicas (anexos 1,2 y 3).

No podrán optar a estas ayudas las y los deportistas que sean beneficiarios de ayudas similares o con la misma finalidad otorgadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Hirugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.**

Eskaerak eta laguntza hauetarako dokumentazioa aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta egun hauetan amaituko da:

- I. eranskina: apirilaren 3an.
- 2. eranskina: apirilaren 3an.
- 3. Eranskina: ekainaren 30ean.

Eskaerak eta dokumentazio osagarriak aurkeztu behar da posta elektronikoz hona: fundazioa@kirolgi.org.

**Tercero.- Plazo y lugar de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de las solicitudes y la documentación para estas ayudas se iniciará el día siguiente de la publicación de la convocatoria y finalizará en las siguientes fechas:

- Anexo 1: 3 de abril.
- Anexo 2: 3 de abril.
- Anexo 3: 30 de junio.

La presentación de las solicitudes y la documentación complementaria se realizará vía correo electrónico a través de la dirección fundazioa@kirolgi.org.

**Laugarrena.- Dokumentazioa.**

1.- Diru laguntzekin batera aurkeztu beharko den dokumentazio komuna, zeinaren modeloak erantsita baitoaz, hauek dira:

- Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- Erantzukizunezko adierazpena, atxikita doan modeloari jarraikiz.
- Eskatzaileak irekitako kontu korronte baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki erakunde batek emana.
- Dagokion Gipuzkoako kirol federazioaren egiaztagiria, kirol lizentzia baduela eta denboraldi horretan Gipuzkoako kirol batekoa dela egiaztatzeko.

2.- Diru laguntzekin batera aurkeztu beharko den dokumentazio berezia, zeinaren modeloak erantsita baitoaz, hauek dira:

1. eranskina: Gipuzkoako kirol federazioaren egiaztagiria, kirol merituak egiaztatzeko.

**Cuarto.- Documentación.**

1.- La documentación común que deberá acompañarse a las solicitudes de subvención, cuyos modelos se adjuntan, será la siguiente:

- Copia del Documento Nacional de Identidad.
- Declaración responsable, según modelo adjunto.
- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre.
- Certificado de la federación deportiva guipuzcoana correspondiente de disponer de una licencia deportiva y estar adscrito/a a un club deportivo de Gipuzkoa en la temporada en curso.

2.- La documentación específica que deberá acompañarse a las solicitudes de subvención, cuyos modelos se adjuntan, será la siguiente:

Anexo 1: Certificado de la federación deportiva guipuzcoana correspondiente que acredite los méritos deportivos alegados.

- 2. eranskina: Espainiako kirol federazioaren egiaztagiria, Espainiako selekzio absolutuarekin edo beherako hurrengo mailarekin txapelketa ofizialetan parte hartu duela egiaztatzeko.

- 3. eranskina:

  a) Kirol programa eta plaza olinpiko eta paraolinpiko bat eskuratzeko aurrekontua Tokio 2020rako, eta zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela kreditatzea.

  b) Espainiako kirol federazioaren egiaztagiria, Tokio 2020rako plaza olinpiko edo paraolinpiko bat lortu duela egiaztatzeko.

- Anexo 2: Certificado de la federación deportiva española correspondiente que acredite su participación en partidos de competiciones oficiales con la selección española absoluta o la inmediatamente inferior.

- Anexo 3:

  a) Programa deportivo y presupuesto ligado al acceso a una plaza Olímpica o Paralímpica para Tokio 2020 y acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

  b) Certificado de la federación deportiva española correspondiente que acredite la obtención de una plaza Olímpica o Paralímpica para Tokio 2020.

**Bosgarrena.- Laguntzen gehieneko zenbatekoa.**

Jasotako laguntzek muga hauek izango dituzte:

- 1 eranskina: 4.000 euro.
- 2 eranskina: 4.000 euro.
- 3 eranskina: 5.000 euro.

**Quinto.- Límites máximos de las ayudas.**

La ayuda percibida no podrá superar los siguientes límites:

- Anexo 1: 4.000 euros.
- Anexo 2: 4.000 euros.
- Anexo 3: 5.000 euros.

**Seigarrena.- Diru laguntza ordaintzea.**

Emandako diru laguntzak honela ordainduko dira:

- 1. eranskina: laguntza emateko unean.
- 2. eranskina: laguntza emateko unean.
- 3.-a) eranskina:
  - % 60 arte, konturako ordainketa gisa, diru laguntza onartzen denean.
  - Gainerako diru kopurua, berriz, kontu zurigarria aurkezten denean diru laguntzetarako deialdiaren urteko urriaren 15a baino lehen, diru laguntza hauek emateko oinarri orokorretan zehaztutako edukia duena.

**Sexto.- Abono de la subvención.**

Las subvenciones concedidas se abonarán del modo siguiente:

- Anexo 1: En el momento de la concesión.
- Anexo 2: En el momento de la concesión.
- Anexo 3 – a):
  - Hasta el 60%, en el momento de la concesión en concepto de pago a cuenta.
  - La cantidad restante, a la presentación, antes del 15 de octubre del año de la convocatoria de las subvenciones, de la cuenta justificativa, con el contenido determinado en las bases generales del otorgamiento de estas subvenciones.

- 3.-b) eranskina: laguntza emateko unean.

**Zazpigarrena.- Laguntzen finantzazioa eta aurrekontua.**

Baimendutako gastua, berrehun eta hirurogeita hamar mila (270.000,00) eurokoa da.

**Zortzigarrena.- Jakinaraztea.**

Deialdiaren ebazpena www.gipuzkoakirolak.eus web orrian argitaratuko da.

**Bederatzigarrena.- Araudi aplikagarria.**

Bere oinarri arautzaileetan ezarritakoaz gain, laguntza hauek Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak eta hori garatzeko onartutako erregelamenduak (2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuak) arautuko dituzte.

- Anexo 3 – b): En el momento de la concesión.

**Séptimo.- Financiación y presupuesto de las ayudas.**

El gasto autorizado es de doscientos setenta mil (270.000,00) euros.

**Octavo.- Notificación.**

La resolución de la convocatoria será objeto de publicación en la página web www.gipuzkoakirolak.eus.

**Noveno.- Normativa aplicable.**

Además de por lo dispuesto en sus bases reguladoras, estas ayudas se regirán por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba su Reglamento de desarrollo.